


25/
ZABALA-ARANA

M. B. S.

A.T.V.
1923

DANEURTIZTIA


AMABI ATALTXOTAN




DONOSTIA

Loyola'taf Iñaki Deunaren irafkola

1923



A.T.V.
1928



M. - 5580
R. - 1867



DANEURTIZIA

AMABI ATALTXOTAN

A.T.U.
1928



DONOSTIA

Loyola'taf Iñaki Deunaren irafkola

1923

DANIELS

AMBI ATALHOTAN



YABEA DU

DONOSTIA

Legenda de la literatura de la

1933

O A R A

*Idaztiño ontako itz beñiak, Ariandiaga'tař
Imanol Aba, M. B. S.'k antolaturiko Daneur-
tizti aunditikan arřu dira. Tamala, idazti eder
ori irarřzeka egotea! Irařpen orřtzaz ardura-
tuko dan euzkeltzalerik ez ote da?*

*Daneurřizti txiki au, urte gutxidun umien-
tzako egin da. Atsegintsua izango al zaye!*

Z-A.

AIZUAK

—
Imprimatur

Josephus Arumí, C. M. F.

Sup. Prov.

Imprimatur

Victoriae, 24 sept. 1925.

Dr. Assumptio Gurruchaga.

Vic. Gen.

AZALAK


1. Begiratzan ditugun gauzai *azalak* ikusten dizkiegu.

2. Azalak bitakoak dira: *labak* eta *makuñak*.

Orma zuzenaren alde *azal laba* da; orma makuñarena, *ordea*, *azal makuña*.

3. Azal laba irutakoa da: *zutuna*, *etzuna* ta *eroria*.

4. Azal zutuna, zutik, edo goitik bera, dagona da: *etxeko orma-azalak*.



5. Azal etzuna, etziñik, edo eskeretik eskaira dagona da: **ur geldiaren gañea.**



6. Azal eroria, albokera, edo albotik beste aldeko goira alabera, dagona da: **etxegañe edo telatua.**

7. Bi ala geyago azal lau elkarrekiko *zutiñak*, *zeañak* ala *bikiak* dira.

Etxeko orma bakoitza, aldamenekoa-
rekiko zutiña, ta auñez-auñekoarekiko
bikia izan oi da; telatua, ordea, bearekiko
zeaña.

8. Azal makuña bitakoa da: *ganbila* ta *unbila*.

Tupi-gañea azal ganbila da; tupi-ba-
rua, ordea, azal unbila da.




GALDEAK

1. Begirutzen ditugun gauzai zer ikusten diegu?
2. Azalak zenbatakoak dira?
3. Azal laba zenbatakoa da?
4. Azal zutuna zein da?
5. Azal etzuna zein da?
6. Azal eroria zein da?
7. Bi ala geyago azal lau elkarrekiko zenbatakoak dira?
8. Azal makufa zenbatakoa da?

YARDUKIZUNAK

1. Esandako azal-mota guziak gauzaetaz erakutsi.
2. Idazti ala ingiakaz azal-mota oyek antolatu.



II

Seikondea

1. Seikondeak sei *alde* ditu.

2. Seikondearen *ertza* bi alde elkar yosten dirana da.

3. Seikondearen *erpiña*, iru ertz elkar yosten dirana da.

4. Seikondeak zortzi erpin eta amabi ertz ditu.


5. Seikondearen *altzokoa*, aldeak elkar yosten diralarik egiten dan zokoa da.

6. Altzokoa bitakoa da: *ertz-altzokoa* ta *erpin-altzokoa*; ertz-altzokoa, bi alde egiten duten zokoa; erpin-altzokoa, bi baño geyagok egiten dutena.


7. Seikondeak zortzi erpin-altzoko ta amabi ertz-altzoko ditu.

8. Seikondearen altzokoak *aritezak* dira, alde-zutin-arteko zokoak diralako.

9. Alde zearak egindako altzokoa *zeara* da; eta *zoñotza* ta *motza* izan daiteke: zoñotza, aldeak zutiñak baño estuagoak diralarik;



motza, aldeak zutiñak baño zabalagoak dirarrikan.



GALDEAK

1. Seikondeak zenbat alde ditu?
2. Seikondearen ertza zer da?
3. Seikondearen erpiña zer da?
4. Seikondeak zenbat erpin eta zenbat ertz ditu?
5. Seikondearen altzokoa zer da?
6. Altzokoa zenbatakkoa da?
7. Seikondeak zenbat erpin-altzoko ta zenbat ertz-altzoko ditu?
8. Seikondearen altzokoak zelakoak (nolakoak) dira?
9. Alde zeañak egindako altzokoa zelakoa da, ta zenbatakkoa izan daiteke?



YARDUKIZUNAK

1. Seikondean aldeak, ertzak, erpiñak eta altzokoak erakutsi.
2. Ingarakaz-edo seikondea, ertz-altzokoa, erpin-altzokoa, altzoko arteza, altzoko zofotza ta altzoko motza antolatu.

III

Lautua

1. Seikondearen aldeak, *lautuak* edo *lauki-lautuak* dira.



2. Lautuaren ertz-ertzak, *leñoak* dira.

3. Leñoak, azalak bezela, askotakoak dira: *zuzenak* (A), *makuñak* (G), eta *zuzen-makuñak* (K); *zutunak* (E), *etzunak* (A), eta *ero-riak* (D); *zutiñak* (O-L), *zeañak* (E-D), eta *bikiak* (U-R).

4. Lautuaren lau ertzak leño zuzenak dira: *auñez-auñekoak*, *bikiak*; eta *aldamenezkoak*, *zutiñak*

5. Lautuaren ertzak egiten dituzten lau zokoak, *leítzokoak*, edo *leño-zokoak* dira.

6. Leítzokoak, altzokoak bezela, *arítezak* eta *zeańak*, abek *zońotzak* eta *motzak*, izan daitezke.

7. Lautuak, lau ertz biki berdin eta lau leítzoko arítez ditu.

8. Lau ertz biki berdin eta lau leítzoko zeań ditun laukia, *lautzeańa* edo *lautu-zeańa*, da (T).

GALDEAK

1. Seikondearen aldeak zer dira?
2. Lautuaren ertz-ertzak zer dira?
3. Leñoak zenbatakoak ote dira?
4. Lautuaren lau ertzak zein motako leñoak dira?
5. Lautuaren ertzak egiten dituzten lau zokoak zer dira?
6. Leítzokoak zenbatakoak izan daitezke?
7. Lautuak zeintzuk gai ditu?
8. Lau ertz biki berdin eta lau leítzoko zeań ditun laukia zer da?

YARDUKIZUNAK

1. Lautuan leñoak eta leítzokoak erakutsi.
2. Oibeltzan leño-mota guziak egin.
3. Zotzekaz-edo leño ta leítzoko-mota oro antolatu.
4. Lau zotzekaz lautua ta lautzeańa eraldu.

IV

Lebaña

1. Lebaña, alde lauz ertsitako aldedia da.

2. Lebañak auñez-auñe bi alde biki elkar-beñdin ditu.

3. Lebañak auñez-auñe ditun bi alde bikiai *oñaldeak* deritze.


4. Lebañ geyenak, kutxak eta beste aldeak *lauzatuak*, edo *lauki-luzatuak*, izaten dituzte.

5. Lauzatuak, lau leñtzoko artez, bi eñtz biki luze, ta beste bi labuñagoak ditu.

6. Lau leñtzoko zeañ ditun lauki luzatua, *lauzatzeaña* da.

7. *Birbikia*, lau ertzak biñaka elkar-bikiak ditun laukia da.

8. Birbikiak lautakoak dira: lautuak, lauzatuak, lautzeaña, eta lauzatzeaña.



Lautu 1

Lauzatua

Lautzeaña


Lauzatzeaña

GALDEAK

1. Lebaña zer da?
2. Lebañak aurrez-aurre zertzuk ditu?
3. Lebañak aurrez-aurre ditun bi alde bikiai zer deritze?
4. Lebañ geyenak beste aldeak zelakoak izaten dituzte?
5. Lauzatuak zeintzuk gai ditu?
6. Lau leitzoko zear ditun lauki-luzatua zer da?
7. Birbikia zer da?
8. Birbikiak zenbatakoak dira?

YARDUKIZUNAK

1. Edozein lebartan oñaldeak, ertzak, erpiñak eta altzokoak erakutsi.
2. Olbeltzan guzitako birbikiak egin.
3. Zotzakaz eraldutako lautua, lautzeaña egin.
4. Zotzakaz-edo egindako luzatzeaña, lauzatu biufu.



V

Txuntuña



1. Txuntuñak *erpiña, oñaldea, ta albo-aldeak* ditu.

2. Txuntuñaren albo-aldeak, *irukiak* dira.

3. Irukiak iru ertz eta iru leitzoko ditu.

4. Irukia, ertzaketz, irutakoa da: *ertzakidea*, iru ertzak kideak, edo *berdiñak*, dituna; *bigertzakidea*, bi ertz kideak dituna; eta *ertzakideza*, iru ertzak kide-ezak dituna.

5. Irukia, leitzokoketz ere, irutakoa da: *leitzoko arteza*, iru leitzokotarik bat arteza duna; *leitzoko motza*, leitzoko bat motza duna; eta *leitzoko zoñotza*, iru leitzoko zoñotz dituna.



Eftzakidea

Bigeftzakidea

Eftzakideza

6. Iruki leitzoko-artezaren bi ertz elkarzutiñak *zitunak* dira; eta irugařena, *edoria*.


7. Txuntuřaren oñaldea, irukia, laukia, boskia, ta abar, izan daiteke; eta ořezkero, txuntuřa bera ere, *irukitia*, *laukitia*, *boskitia*, ta abar, izango da.

GALDEAK

1. Txuntuřak zeintzuk gai ditu?
2. Txuntuřaren albo-aldeak zer dira?
3. Irukiak zenbat ertz eta leitzoko ditu?
4. Irukia, ertz²ketz, zenbatakoa da?
5. Irukia, leitzokoketz, zenbatakoa da?
6. Iruki leitzoko-artezaren ertzen izenak zeintzuk dira?
7. Txuntuř-oñaldea zelakoa izan daiteke? eta ořezkero, zein izango da txuntuřaren beraren izena?

YARDUKIZUNAK

1. Txuntuřan, erpiña ta oñaldea ta, erakutsi.
2. Olbeltzan iruki-mota guziak egin.
3. Iruki leitzoko-artezaren zitunak eta edoria erakutsi.
4. Oñaldea irukia dun txuntuřak zenbat alde ditun esan.



Leftzoko-arteza

Leftzoko-motza

Leftzoko-zofotza

VI

Txuntuñ-motza

1. Txuntuñ motzak bi alde biki ditu.

2. Txuntuñ motzaren bi alde bikiai *oñaldeak* deritze.


3. Txuntuñ motzaren alboalde bakoitza *laupikia*, edo *lauki-bikia* da; lau eñtzetarik bi bakañik bikiak ditulako.

4. Laupikia bitakoa da: *leñtzoko-arteza*, bi leñtzoko artez ta bi zeañ dituna (A); eta *leñtzoko-zeaña*, lau leñtzoko zeañ dituna (G).

5. Txuntuñ-motz zuzeneko laupikiak leñtzoko-zeañak dira.

6. *Laupikieza*, bere lau eñtzak elkañ-biki ezak dituna da (K).

7. Laukiko *zeañ-leñoa*, laukiaren erpin batetik auñez-auñeko erpiñerañoko leño zuzena da; eta laukia erdi biñatan erdibitzen du (K).




GALDEAK

1. Txuntuf-motzak zenbat alde biki ditu?
2. Txuntuf-motzaren bi alde bikiai zer deritze?
3. Txuntuf-motzaren albo-alde bakoitza zer da?
4. Laupikia zenbatakoa da?
5. Txuntuf-motz zuzeneko laupikiak zein motakoak dira?
6. Laupikieza zer da?
7. Laukiko zear-leñoa zer da?

YARDUKIZUNAK

1. Txuntuña, txuntuf-motz biurtzeko, zela ebaki beař dan esan.
2. Olbeltzan laupikiak egin.
3. Laupikieza ta zear-leñoa edaztu.
4. Laupikiari bi zear-leño edaztuaz zeintzuk irudi egiten diran erakutsi.



VII

Aldedia

1. Aldedia, alde lauz ertsitako gogoña, edo daneurtiztiko gauza, da.

2. Aldedia askotakoa da: *laraldedia*, *bostaldedia*, *seraldedia*, *saspaldedia*, t. a., lau, bost, sei, saspi, t. a., alde ditularikan.

3. Aldediaren aldeak, *lertzokodiak* dira.

4. Lertzokodian dira: *lertzokoak*, *ertzak*, *erpiñak* eta *bilertza*; baita *zeñ-leñoak* ere.


5. Bilertza, lertzokodi-ertzen geikuna da; eta zeñ-leñoa, erpin batetik urangoa ez dan beste erpiñerañoko leño zuzena.

6. Lertzokodia *adona* da, ertz eta lertzoko guziak berdiñak ditularik; eta *adoneza*, guziak berdiñak ez ditularikan.

7. Lertzokodia, lertzokoketz, askotakoa da: *irukia*, *laukia*, *boskia*, t. a., iru, lau, bost, et. a., lertzoko ditularikan.

8. Lebaña ere askotakoa da: *irukitia*, *laukitia*, *boskitia*, t. a., oñaldeak irukiak, laukiak boskiak eta, diralarik.

9. Aldedi *adonak*, edo lertzokodi adon eta edazkidietaz ertsitakoak, bost dira: *laraldedia*, *seraldedia*, *zortzaldedia*, *amabaldedia* ta *ogeraldedia*.




GALDEAK

1. Aldedia zer da?
2. Aldedia zenbatakoa da?
3. Aldediaren aldeak zer dira?
4. Lertzokodian zertzuk dira?
5. Biertza ta zear lefoa zeintzuk dira?
6. Lertzokodia noiz da adona, ta noiz adoneza?
7. Lertzokodia, lertzokoketz, zenbatakoa da?
8. Lebaña zenbatakoa da?
9. Aldedi adonak zenbat eta zeintzuk dira?

YARDUKIZUNAK


1. Lertzokodietako lertzokoak, ertzak, erpiñak eta, erakutsi.
2. Lertzokodi adonak eta adonezak egin.
3. Lusagarretan-edo aldedi-mota batzuk antolatu.



Laraldedia

Seraldedia

Zoftzaldedia



Amabaldedia

Ogeraldedia

VIII

Buldua

1. Bulduak alde-azal biribila ta bi oñalde lau biki ditu.

2. Buldu-ardatza, oñalde-baŕu-erdi batetik besterañoko leŕo zuzena da.

3. Buldu-oñaldeko ertz biribila leŕabilā da.


4. Leŕabilā, baŕu erditik berdin uruti edaztutako leŕo biribil ertsia da.

5. Leŕabilā-baŕuz, *aŕa*, *aŕerdia* ta *edea* edazten dira.

6. *Ebaleŕoa*, leŕabilā bi tokitan ebakitzen dun leŕo zuzena da; eta *ikuleŕoa*, leŕabilā toki baten, ikulatzan, ikutzen duna.

7. *Makoa*, leŕabilāren edozein zati da; *leŕaŕerdia*, leŕabilāren erdia; eta *laurdena*, leŕabilāren laurdena.

8. Leŕabilā 360 zati berdiñetan, edo *mela-*



tan, zatitzen da; mala bakoitza, 60 *iroirene-*
tan; eta iroirena, 60 *iroikietan*.


9. Malak goi-uztintxoaz iragañzen dira;
iroirenak, goi-arastaz; eta iroikiak, bi goi-
arastakaz.

GALDEAK

1. Bulduak zeintzuk gai ditu?
2. Buldu-ardatza zer da?
3. Buldu-oñaldeko ertz biribila zer da?
4. Leñabiāa zer da?
5. Leñabi a-bañuz zeintzuk leño edazten dira?
6. Ebaleñoa ta ikuleñoa zertzuk dira?
7. Makoa, leñālerdia ta laurdena zertzuk dira?
8. Leñabiāa zela zatitzen da?
9. Malak, iroirenak, eta iroikiak zela iragañzen
dira?

YARDUKIZUNAK

1. Ingiaz buldua egin.
2. Oibeltzan leñabiāa, leñālerdia, ta laurdena edaztu.
3. Leñabiāari āra, ālerdia, edea, ebaleñoa ta ikule-
ñoa egin.
4. Oibeltzan, 90 mala ditun makoa, 180 dituna, ta
270 dituna egin.



IX

Kosnoa

1. Kosnoaren] oñaldea *oboa* da; eta kosnoaren albo-aldea, obo-gañean asi ta erpiñan bukatzen dan azal ganbila.

2. Kosno *motzak* bi oñalde ditu: biak oboak dira, bata bestea baño txikiagoa.

3. Oboa leñabilaren barnea da.


4. Añak oboa bi zati berdiñetan, edo *oberdietan*, zatitzen du; edeak, ordea, bi zati berdiñezetan.

5. *Añerditañtea*, bi añerdien tañteko zatia da; eta *edamakotañtea*, edearen eta bere maakoaren tañteko zatia.

6. *Erestuna*, bañu-erdi berbera duten bi leñabilen tañteko obo-zatia da; eta *erestunkia*, bi añerditañteko erestun-zatia.



Oboa



Erestuna

7. Kosno zořotzaren alde-azala, luzatu ezkero, ařerditařtea da; eta kosno motzarena, erestunkia.

GALDEAK

1. Zertzuk dira kosnoaren ořaldea ta albo-aldea?
2. Zenbat eta zertzuk dira kosno motzaren ořaldeak?
3. Oboa zer da?
4. Ařak eta edeak oboa zela zatitzen dute?
5. Zer da ařerditařtea, ta zer edamakotařtea?
6. Erestuna ta erestunkia zertzuk dira?
7. Kosno zořotzaren alde-azal luzatua zer da? eta kosno motzarena?

YARDUKIZUNAK

1. Ingiakaz kosnoa ta kosno-motza egin.
2. Olbeltzan oboa eginda, oberdietan eta zati nausi ta txikietan zatitu.
3. Ařerditařtea, edamakotařtea, erestuna, ta erestunkia antolatu.
4. Ingizko ařerditařteaz ta erestunkiaz kosnoak eraldu.



Erestunkia

Ařerditařtea

Edamakotařtea

Boronbila

1. Boronbila, gogoř bi-ribil-biribila da, azal osua bařu-erditik beřdin-uřuti duna.




2. *Boronbil-ařa*, azaleko alde batetik besterařo bařu erdi-zear egindako le-řo zuzena da; eta *ařerdia*, bařu-erditikan aza-lerařo egindakoa.

3. *Boronbil-ardatza*, boronbilak buru-bira egiteko, esekitzen dan ařa da; eta *ařburuak*, ardatzaren buru edo erpin biak dira.

4. Boronbilan *obo nagusi* bat, eta *obo txiki* asko izan daitezke: obo nagusia, labak boronbila bařu-erdi-zear ebakitzen dularik egi-ten dana; eta

obo txikiak, boronbila ba-řu-erdi-zear ez dalarik ebakiaz egi-ten diranak.



5. Obo na- gusiak boronbila bi zati beřdiřetan, edo *bo- ronbilerdietan* zatitzen du.

6. Boronbil *txapela*, obo txikiak ebakitako ganbil-zatia da.

7. Boronbil-*erestuna*, bi obo bikiren tañteko ganbil-zatia da.

8. Boronbil-*leñalerditañtea*, bi leñabil nagusiren tañteko ganbil-zatia da.

GALDEAK

1. Boronbiñ zer da?
2. Boronbiñ aña ta añerdia zeintzuk lefo dira?
3. Boronbil-ardatza ta añburuak zertzuk dira?
4. Boronbiñan zelako oboak izan daitezke?
5. Obo nagusiak boronbiñ zela zatitzen du?
5. Boronbil *txapela* zer da?
7. Boronbil *erestuna* zer da?
8. Boronbil-*leñalerditañtea* zer da?

YARDUKIZUNAK

1. Larana bitara zatitu, obo nagusia ta txikiak egiñik.

2. Yauztoa (*pelota*) añtuta, bere bidez, boronbiñatzaz esandakoa erakutsi.

XI

Beste gauza yakingaŕiak


1. Gauzak irutara neuŕtzen dira: *luzez ala aundiz, zabalez ta lodiz* (13'gko. irudia ikusi)
2. Iru neuŕiak ditun gauza, *gogoŕa*, edo *daneuŕtiztiko gauza* da.
3. *Azala* bi neuŕiak, edo luze-zabalak, egi-ten dute; *leŕoa*, neuŕi batek, edo luzeak; eta *kulatza*, gauzean ez luzea, ez zabala, ez lodia danak.
4. Leŕo-neuŕi-eredua, *neuŕkiña* da; azal-neuŕi-eredua, *neuŕkin-laukondea*; eta gogor-neuŕi-eredua, *neuŕkin-seikondea*.
5. *Edazkoa*, gauza edazturik dagon tokia da; eta *gauzokia*, gauza guziak dauden tokia.
6. *Irudia*, edazkoak dun era da; eta *ertza*, irudia bukatzen dun leŕoa edo leŕo-batza.
7. Irudiak, ertzaketz, irutakoak dira: *ertza-zuzenak*, *ertza-makuŕak* eta *ertza-zuzen-makuŕak*.
8. Edazkoa azteŕtu ta irakasten dun yaki-dia *Daneuŕtiztia* da.
9. Daneuŕtiztia bitakoa da: *lautazkoa*, edo lau baten dauden irudiak azteŕtzen dituna; eta *gauzokizkoa*, edo lau askotan dauden irudiak —gogoŕak—azteŕtzen dituna.

GALDEAK


1. Gauzak zeinbatara neurtzen dira?
2. Iru neuriak ditun gauza zer da?
3. Azala, lefoa ta kulatza zertzuk egiten dituzte?
4. Zein da lefoen neuri-eredua, eta zeintzuk, azalena ta gogofena?
5. Edazkoa ta gauzokia zertzuk ote dira?
6. Irudia zer da, ta zer ertza?
7. Irudiak, ertzaketz, zenbatakoak dira?
8. Edazkoa aztertu ta irakasten dun yakidia zein da?
9. Daneurtiztia zenbatakoa da?

YARDUKIZUNAK

1. Ikastolako gauzai neurkiñaz iru neuriak aitu.
2. Ikaste-mayaren azalak, lefoak kulatzak eta edazkoa erakutsi.
3. Ertzaketz irutako irudiak egitu.



Irudi eftza-zuzena



Irudi eftza-makufa
ta eftza-zuzen-makufa

XII

Irudi-neurkera

1. Irudiak neuritzeko, *araba*, *eskairua*, *neurkatza* ta *leñalerdia* erabiltzen dira.

2. Leitzoko-neuria, leitzokoa dan zabala da; eta neuri ori mala-leñalerdiaz artzen da.

3. Birbikiaren barnea, birbiki-oñertza goyaz zenbakoiztua da.

Orezkero, lautuaren barnea, bere edozein ertz buru-zenbakoiztua da.

4 Iruki-barnea, oñertza goi-erdiaz zenbakoiztua da.

5. Laupiki-barnea, bere bi oñertzak geitu ta goi-erdiaz zenbakoiztua da.

6. Leitzokodi adonaren barnea, leitzokodibilertza artzutin-erdiaz (1) zenbakoiztua da.

Leitzokodi adonezaren barnea, leitzokodi baruan egindako iruki guzien barne-geikuna da. (Ikusi 27'gko. irudia).

7. Leñabil-barnea, edo oboa, leñabila bera añerdiaren erdiaz zenbakoiztua da.

Leñabila bera neuritzeko, aña neurtzen da lenbiziz; eta añaren neuria 3'1416'taz zenbakoiztu, edo $2 \pi R$; leñabila, ba, bere aña baño

(1) *Artzutiña* (aña-zutiña), leitzokodi-baru-erditik értzeraño-ko leño zutiña da. (Ikusi 30'gko. irudia).

iru bete ta anei ta lareun eta amasei amañareiren aundiagoa da.


8. Lebañaren kaizua, oñaldearen bañea goyaz zenbakoiztua da.

Orezkero, seikondea, bere eitz bat seikondetu edo erburutua da.

9. Txuntuñ-kaizua, oñalde-bañea goi-irurenaz zenbakoiztua da.

10. Buldu-kaizua, oñalde-bañea goyaz zenbakoiztua da.

11. Kosno-kaizua, oñalde-bañea goi-irurenaz zenbakoiztua da.



Eskairua ta araba

Maña-leñalerdia


GALDEAK

1. Irudiak neurtzeko zertzuk erabiltzen dira?
2. Leitzoko-neuria zer da, ta zertaz aitzen da?
3. Birbikiaren bañea zein da? eta zein lautuarena?
4. Iruki-bañea zein da?
5. Laupiki-bañea zein da?
6. Leitzokodi adon eta adonezen bañeak zeintzuk dira?

7. Lefabil-bafnea zein da? eta lefabila bera neuf-izeko zer egiten da?
8. Lebañaren kaizua zein da? eta seikondearena?
9. Txuntuñ-kaizua zein da?
10. Buldu-kaizua zein da?
11. Kosno-kaizua zein da?

YARDUKIZUNAK


1. Mota askotako irudiak egin, eta beren bafneak neufu.
2. Gogoñen kaizua aflu.





ARKIBIDEA

I.	Azalak.....	5— 7
II.	Seikondea.....	8— 9
III.	Lautua.....	10—11
IV.	Lebaña.....	12—13
V.	Txuntuña.....	14—15
IV.	Txuntuñ-motza.....	16—17
VII.	Aldedia.....	18—19
VIII.	Buldua.....	20—21
IX.	Kosnoa.....	22—23
X.	Boronbila.....	24—25
XI.	Beste gauza yakingaŕiak.....	26—27
XII.	Irudi-neurkera.....	28—29






ARKIBIDEA

1-2
3-4
5-6
7-8
9-10
11-12
13-14
15-16
17-18
19-20
21-22
23-24
25-26
27-28
29-30

I. Anisak
II. Schistosoma
III. Lumbricoides
IV. Trichostrongylus
V. Trichostrongylus
VI. Trichostrongylus
VII. Albugo
VIII. Paratuberculosis
IX. Kryptosporidium
X. Blastocystis
XI. Cyclospora
XII. Cryptosporidium



Maskiloa



Daneurtizti-itzak

Azal.....	Superficie.	Bigertzakide....
Lau, laba.....	Plana, llana.	Ertzakidez.....
Makur.....	Curva.	Zitun.....
Zutun.....	Vertical.	Edori.....
Etzun.....	Horizontal.	Iruki.....
Erori.....	Inclinada.	Txuntur-motz...
Zutin.....	Perpendicular	Laupiki.....
Zear.....	Oblicua.	Laupikiez.....
Biki.....	Paralela.	Zear-leño.....
Ganbil.....	Convexa.	Laraldedi.....
Unbil.....	Cóncava.	Seraldedi.....
Seikonde.....	Cubo.	Zortzaldedi.....
Ertz, ertza.....	Arista, borde.	Amabaldedi....
Erpin.....	Vértice.	Ogeraldedi.....
Ertz-altzoko.....	Angulo diedro	Leitzokodi.....
Erpin-altzoko.....	Angulo polie.	Bilertz.....
Aitez.....	Recto.	Geikun.....
Zorotz.....	Agudo.	Adon.....
Motz.....	Obtuso.	Adonez.....
Lautu.....	Cuadrado.	Boski.....
Lauki.....	Cuadrilátero.	Edazkide.....
Leño.....	Línea.	Buldu.....
Leitzoko.....	Angulo lineal.	Ardatz.....
Lautzear.....	Rombo.	Leñabil.....
Lebar.....	Prisma.	Aña.....
Aldedi.....	Poliedro.	Aferdi.....
Oñalde.....	Base.	Ede.....
Lauzatu.....	Rectángulo.	Ebaleño.....
Lauzatzear.....	Romboide.	Ikuleño.....
Birbiki.....	Paralelogra. ^o	Leñalardi.....
Txuntur.....	Pirámide.	Maña.....
Iruki.....	Triángulo	Iroiren.....
Ertzakide.....	Equilátero.	Iroiki.....

zkeraz ta eñderaz

Isósceles.	Uztin	Cero.
Escaleno.	Kosno	Cono.
Cateto.	Obo	Círculo.
Hipotenusa.	Bañe	Area.
Triangular.	Oberdi	Semicírculo.
Pirámide trun.	Añerdiñte	Sector.
Trapezio.	Edamakotañte	Segmento.
Trapezoide.	Erestun	Corona, anillo
Diagonal.	Erestunki	Trapezio circ.
Tetraedro.	Boronbil	Esfera.
Exáedro.	Gogoñ	Cuerpo geom.
Octáedro.	Buru-bira egin	Girar.
Dodecáedro.	Añburu	Polo, foco.
Icosáedro.	Boronbilerdi	Hemisferio.
Polígono.	Boronbil-txapel	Casquete esf. ^o
Perímetro.	Boronbil-erestun	Zona esférica.
Suma.	Leñañerdiñte	Huso esférico.
Regular.	Kulatz	Punto.
Irregular.	Neuñkin-laukonde	Metro cuadr. ^o
Pentágono.	Neuñkin-seikonde	Metro cúbico.
De igual área.	Edazko	Extensión.
Cilindro.	Gauzoki	Espacio.
Eje.	Daneuñtizti	Geometría.
Circunferen. ^a	Lautazko d.	G. plana.
Diámetro.	Gauzokizko d.	G. del espacio
Radio.	Arau, araba	Regla.
Cuerda.	Eskairu	Escuadra.
Secante.	Neuñkatz	Compás.
Tangente,	Añtzutin	Apotema.
Semicircunf. ^a	Kaizu	Volumen.
Grado.	Seikondetu, erburutu ..	Elevar al cubo
Minuto.	Goi, goya	Altura.
Segundo.	Maskilo	Espiral, carac.



Pluteo

A 7

19

Esta